

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

20/2019 Foru Araua, azaroaren 20koa, Arabako Foru Aldundiaren zehapen araubidea arautzen duen maiatzaren 30eko 17/1993 Foru Araua indargabetzen duena

Arabako Batzar Nagusiek, 2019ko azaroaren 20an egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

20/2019 Foru Araua, azaroaren 20koa, Arabako Foru Aldundiaren zehapen araubidea arautzen duen maiatzaren 30eko 17/1993 Foru Araua indargabetzen duena.

ZIOEN ADIERAZPENA

Indargabetutako azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, administrazio publikoen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearenak, zehatzeko ahalmenari eta zehatze prozedurari buruzko gutxienerako printzipio batzuk, nahitaez bete beharrekoak, aipatzera mugatzen zen. Hori dela-eta, aldundiak 1993an egokitzat jo zuen zehapen prozedura propioa arautzea, aipatutako oinarritzko arau hari errespetu osoz, zuzenbide substantiboa zehaztea lurralde historikoaren eskumenekoak diren gaietarako.

Hala, 2016an, segurtasun juridikoko arrazoiak direla-eta, azaroaren 26ko 30/1992 Legea, administrazio publikoen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearenak, indargabetu egin zen, eta horren orde, bi lege berri egin ziren. Zehazki, zehapen arloan, urriaren 1eko 40/2015 Legeak, sektore publikoaren araubide juridikoarenak, zehapen ahalmenaren printzipio materialak baino ez zituen zehaztu eta erregulazio adjetibo eta prozedurazko oro Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeari utzi zion.

Egun, aipatutako 39/2015 Legeak administrazio prozedura erkidean sartzen ditu zehapen prozeduraren berezitasunak eta prozedura erkide gisa taxutzen du, gutxienerako eskubideekin eta bermekin, eta horren alderdi batzuk arau sektorial berezien bidez zehaztu ahal dira. Horren ondorioz, egun, oinarritzko araudiak zehapen prozedura osoa eta sistematikoa eskaintzen du.

Gainera, 39/2015 eta 40/2015 legeetan jasotzen den erregulazio berriak ordura arte jurisprudentziak proposatutako irtenbideak edo ordura arte arau sektorialetan zeudenak bere gain hartu ez ezik, berrikuntzak sartzen ditu. Horrek guztiak, agerian jartzen du maiatzaren 30eko 17/1993 Foru Arauan inkoherentziak edo desadostasunak daudela, eta, ondorioz, komeni da aipatutako arauak xedatutako oro indarririk gabe uztea.

Gauzak horrela, segurtasun juridiko handiago baten onerako, 1/2017 Foru Arauaren azken xedapenetako bigarrenak (1/2017 Foru Araua, otsailaren 8koa, gardentasun, parte hartze eta gobernu onari buruzkoa) galdegiten duen araugintzaren berrikuspen, sinplifikazio eta finkapen eginkizun horren barruan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak 37.3.a) artikuluan beren erakunde propioen antolamendu, funtzionamendu eta araubide juridikoaren arloan foru organoei aitortzen dien eskumen eksklusiboa baliatuz, foru arau hau onesten da, Arabako Foru Aldundiaren zehapen araubidea arautzen duen maiatzaren 30eko 17/1993 Foru Araua berariaz baliogabetzearen.

Maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuak jasotzen dituen arautze egokiaren printzipioak betez, foru arauaren proiektu hau izapidetzean errespetatu egin dira beharraren, eraginkortasunaren, proportzionaltasunaren, segurtasun juridikoaren, gardentasunaren eta efizientziaren printzipioak. Beraz, interes orokorreko zergati bat dago zehapen araubidearen arloko araudia berariaz indargabetzea arrazoitzen duena, segurtasun juridikoa areagotzeko eta baliabide publikoen kudeaketa hobetzeko. Izan ere, horrela arau esparru argi eta egonkor bat sortzen da.

Eraginkortasun printzipioari gagozkiola, proposatutako arautze horrek, duen izaera dela-eta, ez dakarkie administratuei ez administrazio karga osagarririk, ez premiagabekorik, ez baliabide publikoen kontsumo handiagorik.

Artikulu bakarra. Indargabetzea 17/1993 Foru Araua, maiatzaren 30ekoa, Arabako Foru Aldundiaren zehapen araubidea arautzen duena.

AZKEN XEDAPENA. Indarrean jartzea

Foru arau hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko azaroaren 20a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA